



IRIZPEN ZK.: D17-010

UDAL BATEK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK JUSTIFIKATZEKO AGIRIETAKO DATUAK AURKEZTEA EA DATU LAGATZEA DEN EBAZTEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) irizpen eskabide bat jaso genuen goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jasotako idazkiak honakoa zioen:

“Kontsulta honetako gaia den programaren xedea da diruz laguntzea gaixotasunen bat duten pertsonen eta horien senideek eratutako elkarteek egiten dituzten jarduerak. Jarduera horiek denek helburu komun bat dute, eta da elkarteko kideen bizi kalitatea hobetzea, horretarako, nork bere burua zaintzeko eta autonomia sustatzeko trebetasunak eta baliabideak garatuz, edo norberaren premia soziosanitarioak bideratuz edo gaixotasunaren inguruko ezagutza handituz edo gaixotasunaren ondorio diren desberdintasunak gutxituz.

Programaren deialdia urtero egiten da, saileko titularraren agindu bidez, eta bertan onartzen dira deialdiko oinarri arautzaileak. Eskabideak baloratzeko irizpide bat da jarduerak zenbat hartzaille edo onuradun dituzten. Jarduerak era askotakoak izan daitezke, baina ikastaroak, lantegiak edo bertaratzea eskatzen duten beste edozein modalitatekoak badira, oinarri arautzaileek agintzen diete erakundeei egiaztatzeko bertaratzea. Eta, horretarako, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari bertaratze-zerrendak bidali behar dizkiete izenarekin, bi abizenekin eta NANarekin, zuzendaritza hori delako deialdia kudeatzen duen organoa.

Orain arte datu horiek eskatu dira berme handiagoa izan dezan prozesuak, tartean norgehiagoka-prozedura bat dagoelako eta funts publikoak ematen direlako. Hala ere, asmo hori zapuztu egin zaigu, ez dakigulako datu horien titularren intimitaterako eskubidea urratzen ari ote garen.

Hori hala den aztertzeko, funtsezko irizpide bat izan daiteke jardueraren hartzaillearen izaera edo egoera, hau da, gehienak gaixorik daudela (gainontzekoak senideak dira), eta gaixotasun bera dutela. Horren ondorioz, bertaratzen diren pertsonen identifikazioak osasun datu bat ere badakar atxikita.

Beste irizpide garrantzitsu bat da, gure ustez, nola tratatzen dituen sailak deialdia kudeatzean jasotzen dituen datuak. Biltzen diren datu pertsonal guztiak honako fitxategian jasotzen dira: “Laguntzak jasotzea dagokien entitateak”, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2011ko abenduaren 22ko Agindua (2012ko urtarrilaren 12ko 8. zk.ko EHAA), gerora Osasun sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Aginduak aldatua (2014ko ekainaren 23ko 117 zk.ko EHAA).



2014ko ekainaren 2ko Aginduaren 2.3 atalak xedatzen du zein diren fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: “Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako, tokiko erakundeentzako eta irakaskuntza-zentroentzako laguntza ekonomikoen esleipena kudeatzea”. Era berean dio honakoak direla fitxategiaren eraginpeko pertsonak edo taldeak: “Irabazi-asmorik gabeko entitateen, tokiko entitateen eta irakaskuntza-zentroen ordezkariak”. Aginduak ez du aurreikusten datuen lagapenik eta datuen nazioarteko transferentziarik. Eta segurtasun-neurrietan eskatu beharreko maila oinarritzko maila dela dio.

Argi geratu da tartean ditugun datuak ez datozela bat “Laguntzak jasotzea dagokien entitateak” fitxategiko egiturarekin, eta seguruenik fitxategiaren segurtasun maila ere ez da egokia.

Kontuan hartzeko moduko beste irizpide bat da ukituek edo datuen titularrek ez dutela obligaziorik euren datu pertsonalak emateko deialdia kudeatzen duen zuzendaritzari, harreman juridikoa diru-laguntza eskatzen duten elkarteen eta administrazioaren artean dagoelako ezarrita (eta hori garatzeko eta kontrolatzeko eskatzen dira datuak). Beraz, jardueretan parte hartzen duten pertsonak ez dute hor zer ikusirik. Gainera, kasu honetan ezin dira baliatu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluan finkaturako adostasunaren salbuespenak.

Beraz, egoera ikusita, jarduerak antolatzen dituen erakundeak datuak laga ahal izateko, ukituen adostasuna beharko du nahitaez. Edozelan ere, administrazio publikoen ikuspuntutik begiratuta, helburua da elkarteen ahalegina kontuan hartzea, eta uste dugu informazio hori eskatzea elkarteen espektatiben kalterako izan daitekeela, nahiz eta jakin badakigun, alde batetik, oinarri arautzaileen ondorioz, gerta daitekeela erakundeak datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ez betetzeko atakan gera daitezkeela; eta, bestetik, ez dutela tratatu beharreko datuen ezaugarriekin eta helburuarekin ondo ezkontzen den fitxategirik.

Gure ustez, datu pertsonalak eskatu beharrean, erakundeak izendatutako pertsona batek egindako ziurtagiria aurkeztea —jardueretara bertaratu diren pertsona kopurua eta beharrezkoa den bestelako informazioa adieraziz— datu pertsonalik gabe, ez da egokia diru-laguntza publikoen oinarrian dauden egiazkotasunaren printzipioak dakartzan betebeharrak modu egokian betetzeko, lehen ere esan dugunez.

Datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidearekin ondo ezkontzen den eta prozeduraren bermeak ere errespetatzen dituen irtenbide bat lortzeko, eskatu nahi dizuegu gertakarien gaineko zuen irizpena eta zuen erakundeak egokien ikusten dituen tratamenduak”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.



KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta honen xedea da honako bi eskubide hauen arteko talka ebaztea: batetik, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea, eta, bestetik, administrazioak gauzatu beharreko kontrola, sustapen jardueretarako ematen dituen diru-laguntzen gainean.

Kontsulta egin duen administrazioak dioenez, eskabideak baloratzeko irizpide bat da jarduerak zenbat hartzaile edo onuradun dituzten. Diru-laguntzen deialdiaren 12. artikulua eskabideak balioesteko irizpideak ezartzen ditu, eta balorazio irizpideen artean honakoa dakar:

“b) Zuzenean edo zeharka hartzaile edo onuradun izango diren pertsonen kopurua. Jardueraren biztanle-estaldura: 10 puntu, gehienez”.

Aginduaren 15.1.f) artikulua dio diruz lagundutako proiektua benetan burutu dela justifikatzeko, elkarte onuradunak honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituela:

“f) Proiekturako funtsekin ordaindutako tailer eta ikastarorik antolatu bada, haietan parte hartu dutenen bertaratze-zerrendak (izen-abizenak eta NAN-zenbakia)”.

Datu babesaren esparrutik begiratuta, kontsultak aipatzen duen datu-tratamendua datu-lagatze edo datu-komunikazio bat da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua arabera, datu lagatzea edo komunikazioa zera da: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

Datu lagatzei buruzko araubidea DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta 11.1 artikulua dio datuak laga ahal izateko arau orokorra honakoa dela: ukituak adostasuna adierazi behar duela; eta 11.2 artikuluan daude zehaztuta arau orokorrak dituen salbuespenak. Gure kasuan a) letrak dioena aipatu behar dugu: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”*.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar zein den diru-laguntza jasoko duen kolektiboa, hau da, diruz lagundutako jardueretan egon diren pertsonen datu identifikatzaileak lagaz gero, osasun datuak lagatzea ekar dezakeelako, eta hasiera batean behintzat, DBLOren 7.3 artikulua dioenez, halako datuak tratatzeko, nahitaezkoa da ukituak berariaz adieraztea ados dagoela, edo interes orokorreko arrazoiak egon beharko dute edo lege batek esan beharko du tratatu daitezkeela.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta ikusita diruz lagundutako jardueretara bertaratu direnek ez dutela adostasunik adierazi, aztertu behar dugu ea lege ordenamenduak halako datu tratamenduak legeztatzen dituen, diru-laguntzak ematen dituen administrazioak kontrol eginkizuneko ahalak direla eta.

II

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak (aurrerantzean Antolarauei buruzko Legea) arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek kudeatzen dituzten laguntzen eta diru-laguntzen araubidearen erregulazio orokorra.



Antolarauei buruzko Legearen 48.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, laguntza edo diru-laguntza publikotzat jotzen da *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta bere erakunde autonomiadunek pertsona edo erakunde publikoei nahiz pribatuei diru publikotik doan ematen dieten edozein zenbateko, jendearen onurako edo intereseko jardueraren bat egiteko bada edo helburu publiko bat bultzatzeko bada; bai eta oro har beste edozein laguntza mota ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura bada eta /edo osorik edo zati batean Europar Batasuneko edo beste administrazio bateko funtsekin finantzatu bada”*.

Antolarauei buruzko Legean aipatzen diren diru-laguntzak eta laguntzak emateko, publizitate, konkurrentzia eta objektibitatearen printzipioak bete beharko dira, eta baita lege honetan bertan aipatzen diren jardunbideak eta irizpideak jarraitu ere, tartean 50.2 artikulua xedatutako onuradunen betebeharrak. Hona azpimarratzea merezi dutenak:

“b) Laguntza ematea edo hari probetxua ateratzea eragin duten betekizunak eta baldintzak bete direla eta jarduera gauzatuko dela justifikatzea diru-laguntza eman duen erakundeari.

c) Laguntza eman duen organo edo erakundeak egingo dituen egiaztapen-jarduerak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzak onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren laguntza edo diru-laguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurriak ere onartu beharko dituzte”.

Antolarauei buruzko Legearen 50 artikulua honakoa dio hurrengo atalean:

“Arauek hala aurreikusten duten kasuetan, eskakizun horien betetzea automatikoki begiztatuko du diru-laguntza programaren erakunde kudeatzaileak, eta tartean ez da zertan horretarako baimen-emate espezializaturik egon, laguntzen edo diru-laguntzen eskatzaileen edo onuradunen aldetik”.

Estatuko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.1c) artikulua xedatzen du onuradunak betebeharrak hau ere baduela:

“c) Organo emaileak, erakunde laguntzaileak (hala badagokio) egin beharreko egiaztatze jarduerak onartzea, bai eta eskumena duten beste erakunde batzuk, Estatukoak nahiz Europako Erkidegokoak, egin beharreko egiaztatze eta kontrol jarduerak ere, eta aurkeztea erakunde horiek, euren eginbeharrak burutzeko, eskatzen dizkieten informazio guztia”.

Diru-laguntzak ematen dituen erakundeak burutu behar duen kontrol finantzarioa gauzatzeko ahala dago diru-laguntzen onuradunen betebeharren atzean, Eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 44. artikulua dio kontrolak honakoak egitea dakarrela:

“a) Onuradunen eta erakunde laguntzaileen kontabilitate-erregistroak, kontuak edo finantza-egoerak eta horiek guztien euskarri dokumentalak aztertzea.

b) Emandako diru-laguntzetan eragina izan dezaketen edo diru-laguntzekin zer ikusia izan dezaketen banakako operazio zehatzak aztertzea.

c) Emandako diru-laguntzetan eragina izan dezaketen edo diru-laguntzekin zer ikusia izan dezaketen alderdi partzial eta zehatzak egiaztatzea.

d) Finantzatutako inbertsioak materialki egiaztatzea.



e) Diru-laguntzaren arautegi erregulatzailerak eta, hala badagokio, deialdiko baldintzek, kasu bakoitzean ezartzen dutenaren arabera, egin beharreko kontrol jarduerak zehatzak.

f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri bereziak direla eta, beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egitea”.

Artikulu horrek dioenez, onuradunekin lotura duten pertsona fisikoak edo juridikoak gainean ere egin daiteke kontrol eginkizuna, bai eta lortu nahi diren helburuak lortzera, jarduerak burutzera, proiektuak gauzatzera edo portaerak bereganatzera bideratutako interesen bat izan dezakeen beste edozein pertsonaren gainean ere.

Bestalde, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatu egin zuen Diru-laguntzei buruzko Legea. Horretarako, kontrol eginkizunak burutzen dituzten langileen ahalei buruzko 47. artikuluari beste zenbaki bat gehitu dio (5. zenbakia), eta informazio pertsonala lagatzeko aukera onartzen du, kontrol eginkizuna burutu ahal izateko:

“5. Estatuko Administrazio Orokorren Kontu-hartzailetzari datu pertsonalak lagatzeko, aurreko artikuluan, aurreko ataletan edo beste legeren batean xedatutakoaren arabera dagozkion finantza ahalak burutu ahal izateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru honi dagokionez, ez da aplikatuko Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 21. artikuluan 1. zenbakian ezarritakoa”.

Aurreko gogoetak ikusita, ondorioztatzen da legegileak pentsatu duela, funts publikoen erabilera kontrolatzea, interes orokorreko kontu bat dela; eta, ondorioz, arrazoi hori dago lege-gaikuntzaren oinarrian. Hartara, datu-lagatzea bateragarria da datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin. Edozelan ere, kontrol eginkizuna burutzeko behar beharrezkoak diren datuak baino ez dira lagako, eta helburu horretarako bakarrik, DBLOren 4. artikulua xedatutako kalitatearen printzipioak eskatzen duenarekin bat. Hala eta guztiz ere, uste dugu interesdunei azaldu egin behar zaiela diruz lagundutako jarduerak denez, administrazioari laga ahal izango zaizkiela bertaratuen izena, abizenak eta NANA.

III

Irizpena eskatzeko idazkian aipatzen da zein aginduk sortu zuen “Laguntzak jasotzea dagokien entitateak” fitxategia: 2011ko abenduaren 22ko Agindua, 2014ko ekainaren 2ko Aginduaren bidez aldatua. Baina, hor ez dago aurreikusita datu lagatzerik egin daitekeenik, eta ez du berariaz aipatzen diruz lagundutako jardueretan parte hartzen dutenen datuak fitxategian jaso behar direnik. Gainera, oinarritzko segurtasun maila esleitzen dio fitxategiari.

Lehenengo eta behin, esan behar dugu fitxategia sortzen duen agindua badago ere, horrek ez duela esan nahi datu-lagatzea egiteko lege-gaikuntza dagoenik, eta, egia esan, jasoko balu ere, ez luke izango ondorioz datu-lagatzeari dagokionez; baina, bai, ordea, interesdunei informazio osoa emateari dagokionez, agindu horren bidez inskribatu zelako fitxategia Datuak Babesteko Bulegoaren Erregistroan.

Bestalde, diruz lagundutako jardueretan parte hartzen duten pertsonen datuak fitxategian ez jasotzeko buruz, esan dezakegu Aginduak ez badu ere aukera hori berariaz jasotzen, zilegi izan daitekeela “Interesdunen datu identifikatzaileak” eremuan jasotzea; izan ere,



diru-laguntzaren onuraduna elkartea bada eta ez diruz lagundutako jardueretan parte hartu duten pertsonak, ezin da ahaztu azken finean pertsona horiek izango direla jardueren onurak jasoko dituztenak, hain zuzen ere, jardueri esker hobeto ezagutu dezaketelako euren gaixotasuna eta bizitza kalitatea hobetuko litzatekeelako.

Fitxategiari ezarri beharreko segurtasun-mailari dagokionez, Osasun Sailak kontuan hartu behar duen arau orokorra dela goi-mailako segurtasun neurria ezarri behar zaiela ezustean edo osagarri gisa bereziki babestutako datuak jasotzen dituzten fitxategiei; hau da, ideologiari, sindikatu afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, arrazari, osasunari edo bizitza sexualari buruzko datuak dituztenei. Halakoetan, goi-mailako segurtasun-neurriak hartu behar dira. Goi-mailako segurtasun-neurriak DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 101. artikulutik 103. artikulura bitartean daude zehaztuta.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 22a